

Egilea: **Lexuri Legorburu Arrieta**
Izengoitia: LEGO
Bertsoa, D kategoria
Doinua: Ai gure antzinako.

INAUTERIAK

-I-

Zubieta ta Ituren
Ituren Zubieta (bis)
Joareak dantzatzen
dabiltza kolpeka
tunturrua buruan
kolorez beteta
Auritz artza beraien
artean gordeta
inauterien meka
dugu Malerreka!

-II-

Lantzen inauteria
nork ez du begiko (bis)
ZIRIPOT ai! lurrera
erori da ziplo
gizen dago zaldikok
jo dio ostiko
MIELOTXIN lapurra
plazan hil ta kito
herritarrentzat gaua
bihurtuz magiko!

-III-

Iritsi da eguna
GORA INAUTERII! (bis)
festazale den orok
txarangari segi,
inondikan inora
ez naiz ni ageri,
izan ahal naiz pailazo
makarra zein heavy...
antzaldatu nahi dena
mozorrotu bedi!

-IV-

Kalean barna zenbat
jantzi ta kolore (bis)
jendea dantzan dabil
penak ditu gorde
inor ezagutu ez,
gaur denak aktore...
ta ni mamuen gisa
jarraitzea hobe
lau trago edan ditut
ikusten dut "doble"!

-V-

Danborrada, desfile
txaranga ta zera... (bis)
Tolosan erorita
parrandan topera
txosnetan ibili naiz
gauetik goizera
"Zaldunita" igandez
pijaman atera,
nahiz atzotik ez naizen
sartu ni ohera!